

Galtzaundi

2023ko
apirilaren 24

ESKUALDEA: Araxesko IX. itzulia apirilaren 5ean >>> MDA Fundazioa ezagutzen **KULTURA:** Abian da Martxaundi V **KIROL SALTSA:** Usabalgo rokodromoa: lehengo zaletuak asetu eta berriak sortzeko **GEHIGARRIA:** Ezkontza eta jaunartzeak



ELKARRIZKETA: Maite Gurrutxaga ilustratzaile amezketarra

*Tolosa Kantari,
euskal kantuzaleen
topaketa*



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZER. 587



AMAIA ETXETXIA
BIOLOGA

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERREZIKETA
HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888



Mª Teresa de Olabarria Ruiz
OPTOMETRISTA

IKUSMEN TERAPIA

- Estrabismoak
- Anbliopiak (Begi alferra)
- Ikaste zailtasuna
- Garapeneko arazoak
- Garezur-entzefaliko traumatismoek eragindako arazoak


AUDIOTRAINING

- Hiperaktibitatearen murrizpena
- Ansietatearen murrizpena
- Animoaren hobekuntza

San Francisco 11, 1º ezk. TOLOSA
e-maila: teresaola@euskalnet.net
HITZORDUA - 652 773 813



Meryxe Arregui
Logopediko-Perlogoguna



- Fonetikoki erlijatzen
Karakterizazio deklinatiboa erlijatzen
 - Logopodia
 - 11 onurak izan daitezkeen gaitar batzuk erlijatzen dituzte.
 - 111 kasuak • 111 kasuak
• 111 kasuak • 111 kasuak
• 111 kasuak • 111 kasuak
- LABORANTZAKO ARLOAN GAI BARRUTIKOAK
ERLIJATZEN DITUZTE: ELIZ. ERRETA.

Logopodiarik erlijatzen, meryxe
(Jarduten Arregui Arregui)
Meryxe Arregui Arregui
Web: www.meryxe-arregui.com
Tel: 943 675 421



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea,
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Telefona: 943 655 004

Faxa: 943 654 983

e-posta: galtzaundi@galtzaundi.com

Webgunea: www.galtzaundi.com

Koordinazioa: Leire Zubeldia.

Erredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Begoña Aristi, Antton Izagirre, Ibon Artola, Iñigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarteak, Amaia Goikoetxea Orbeagozo.

Publizitatea: Angela Alamo.

Banatzaileak: Oihana Sanchez,
Juankar Arregi.

Idazkaria: Edurne Mendia.

Maketazioa: Zigor Agirrezabala.

Diseinua: Jon Ander Ubeda eta
Maddi Trutxuelo.

Azala: Galtzaundi

Inprimategia: Antza.

Tirada: 5.000 ale.

Lege gordailua: SS-906/91.

Frankeo Itundua: 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Otxeta, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta inzien erantzukizunik.



zerbitzua eta lana euskaraz

IRITZIAREN LEIHOA

- Antton Izagirre: Gizonak eta eskubide berdintasuna
- Andoni Egia: Urardoa

4-5 orrialdeak

NORMALIZAZIO ATALA

- Euskararen normalizazioan konpromisoak hartuz



6. orrialdea

ESKUALDEKO ALBISTEAK

- Araxesko mendi ibilaldiaren IX. aldia
- MOA Fundazioa langabetuak lan munduan txertatzen

10-12 orrialdeak

Galtzaundi 299

2009ko apirilaren 3a

Iritziaren Leihoa: Antton Izagirre eta Andoni Egia	4-5
Eskualdeko albistek:	
Araxesko IX. itzulua: Edizio erabakigarria	10-11
MOA fundazioa ezagutuz	12
Kultura: Martxaundiren V. aldia abian da	16-17
Kirol saltsa: Usabalgo rokodromoari buruz hizketan	18-19

ERREPORTAIA

Tolosa kantari-



7-9 orrialdeak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena

ELKARRIZKETA

“Uste dut lan handia ilustratzaileok egin behar dugula, geure lana duin bihurtzen jarraitu, geure lanean sinesten jarraitu, eta elkarrekin handiagoa den zerbaiten aldeko apustua egin. Horrez gain, helduentzako literaturan ilustrazioak bere tokia izan dezakeela sinetsiko balitz, jendeak garbi baleuka ilustrazioak helduentzat ere izan daitezkeela, ilustrazioek liburuak apaindu ez ezik osatu eta aberastu ere egin ditzaketela, lana askoz errazagoa izango litzateke”.

- Maite Gurrutxaga Ilustratzailea

13-15. orrialdea



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udaleraren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



“GIZONAK ETA ESKUBIDE BERDINTASUNA”

ANTTON IZAGIRRE

Irakaslea

Oraindik emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz, Izaskun Jimenezen azken erailketak eragindako zirrara gainetik kendu ezinik edo martxoaren 8an gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko aldarrikapenen oihartzunak begibistan ditugula, zalantza ugari sortzen dizkigu erakunde eta giza eremu batzuetatik ematen den diskurtso hutsalak.

Uka ezina da inoiz baino ozenagoa dela gizon eta emakumeen eskubide eta betebeharren berdintasunaren aldeko diskurtsoa, inoiz baino ageriagoak direla eskubide urraketan aurkako salaketak. Zer gertatzen da ba, ageriko diskurtsoa eta eguneroko praktikaren arteko haustura hain nabarmena izateko? Non jarri behar ditugu indarrak berdintasun errearen aldeko praktikak eraginkorrak eta efizak izan daitezten?

Egia da eskubide berdintasunik eza eta emakumeen eskubideen aurkako arazoa, egiturazko arazoa dela, hau da, gizarte matxista eta patriarkalean oinarrituriko giza harremanak garatu eta bideratu izan direla, botere harremanetan oinarrituriko gizarte bizi garela eta gizon-emakumeen arteko harremanak ere, botere harreman gisa garatu ditugula klase edo maila desberdinetako gizakien arteko harremanak balira: maila ekonomikoan, famili harremanetan, sexu harremanetan, etxeko betebeharreran, heziketan e.a. Eta harreman mota hori kulturala bilakatu da urteetako praktikaren poderioz. Horrela belaunaldiz belaunaldi transmititu den eredu kopiatu eta erreproduzitu dugu, ordezko beste eske-marik sortu gabe.

Orain badirudi teoriarik diskurtso aldaketa esanguratsua ematen ari dela gizarte aurreratu eta garrantuetan. Horrela gure gizarte hurbilenean politikoei, kazetariak, pentsalariak, komunikabideak... "politikoki zuzena" den diskurtsoa jorratzeko hautua egin dute, baina askotan zoritxarrez arazoaren mamian eta norberaren praktikan inongo aldaketarik eragin gabe.

Duela gutxi, politikoko ezagun batek gizarte matxista horren aurkako salaketa sutsua diskurtso koherente eta aurrerakoiak defenditzen zuen bitartean, alboko tertulia-kide andrazkoak eguneroko praktikaren gaineko jarduerak xumeenak nork eta nola burutzen zituzten galdetzean, zoritxarrez bere emaztearen gain zeudela etxeko egitekoak erantzuten zuen, heziketa hori jaso zuela eta damua erakutsiaz. Jarraian bere diskurtso koherentea komunikabidez aireztatzen jarraitu zuen inongo zalantzarik erakutsi gabe.

Berriki Euskal Autonomi Elkarteak erakunde publikoetatik, gizonen inplikazio aktiboa eskatzen duten diskurtsoak luzatu dira, hala nola gizonen soilik osaturiko eskubide desberdintasunaren alde eta emakumeen diskriminazioaren aurkako ekimenak eta giza taldeak sortu dira. Asko eta asko borondate onez atxiki izango dira argazki horietara baina, itxura, diskurtsoa eta propagandan oinarrituriko ekimen instituzional hutsa bilakatu dira kasurik gehienetan. Sinesgarritasunik gabeak. Une jakin batean argazki baterako erabilgarria izan da, ondoren bazterrean uzteko.

“Gure gizarte hurbilenean politikoei, kazetariak, pentsalariak, komunikabideak... ”politikoki zuzena” den diskurtsoa jorratzeko hautua egin dute, baina askotan zoritxarrez arazoaren mamian eta norberaren praktikan inongo aldaketarik eragin gabe”

Nahikoa da itxurakeriaz eta une jakin batean “politikoki zuzena” izan daitekeen diskurtso hutsera mugatzen diren guneak utz ditzagun alde batera eta murgil gaitetzen berdintasunezko praktika koherentetan, diskurtso hutsak askorentzat ez baitu jada sinesgarritasunik, are gutxiago eraginkortasuna. Alda dezagun praktika, horrek eraikiko du diskurtsoa.

■

ARTESANIA
**ZUEN
TZART**
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359


**ARTE
TAILERRA**
HAURRAK ETA HELDUAK

Sormen lana: marrazketa,
margoak, eskultura.

Tolosa - Kale Nagusia, 16 - Tlf. 677 340 685

1. Saria. Bidaide bidai agentzian, gau bat bi lagunentzako landa-turismoko etxe batean. Iñaki Olaetxea Amonarriz
2. Saria. Mahala esnekiak produktuen, urdaiazpiko paleta bat eta gazta bat. Oihana Sanchez Artieda
3. Saria. Aralar kirolak dendan, forro polar bat. Juantxo Pagola Letamendia

bai euskarari



Harremanetan jartzeko, Galtzaundiko egoitzara gerturatu edo 943 655 004 telefonora deitu



ZAINETAN URARDOA

ANDONI EGIA

Tolosaldeko EHNEko koordinatzailea

Aupa jende! Zemuz? Aurreko idatzin e ustet zeozer aipatu nula kiris hitza jarri dioten ziri honi buruz, ta askotan burui bueltak ematen (lagun batek esateun bezela, errota martxan jarrita) haitzen naiz: lana, bizi kalidadia, lanorduk, paroa, soldata, gazteak, nagusiak, etorkiñak... Sekula ez det ulertu asunto honek nola funtzionatzeun, ta hobe ulertu naienez ez hastea, bes-tela kitto!

Adibidez; zeatik hai die etorkiñ asko lan bat baño gehio itten, igual astez bat eta asteburutan bestea, eo goizez bat eta atxalden bestea. Aurrenengotik hola esanda erantzuna belakoa da: beharra daukealako, joño!! Ta krisi ziri honekin behar hoi zabalduko zana ba ez? Nik eztaikit baño ez-tet ezautzen nere inguruko jendeik lana itteko holako borondateik dunik, bueno, hoire gezurre a, baño euskaldun bat hola ibiltzeana ez da normala, eo erabat burutik nahastu dala esaten da gizarte akomodatu hontan.

Zeatik baserrita lan eske etortzen dien guzik etorkiñek die? Beharra daukeala-

ko ta gustokoa ez bautere prest daudelako lana iñez soldatatzeko bat ateatzeko.

Bakit hemengo jendea haserretu ingo zeatela, baño gu geok prest egongo al niñeke holako zerbait itteko? Zeatik nahi deu paroa kobratuz eon lana iñ orde? Horren erantzuna logikoa da, baño ez da normala.

Ta barkatu gaztek, 25-30 urtekin paron eotea ni neoni "mala ostin" jartzen nau horrek, ta batekin baño gehiokin eukittut "txoke" earrak kontu hau dala eta. Nik ustet eztela onuragarrie, ta gutxio beti kontuk ateatzen ibiltzea, 2 hilabete lan ittemat, geo eztakit zenbat eun tokatzen zaizkitela...Nola tokatu? Protekzioziko etxea bezela, tokatu intzaiak? Ia ia, tokatu? Ordaintzea, zea!!

Bueno, ez gehiegi beotu, historik eta historik eongoie ta bakotzak be arrazoiek izangoittuzue, hi, baño batzuna abuso bat dala iruitze zait!

Askotan holako bat arrazoitzeko eo ezeztatzeko ne errota honek ateatzeun konklusio bat, ta da: earki mezita eukiko genukela guk e gure jaiot herrin mi-

xeri baten bizitzea eta kanpo herri batea lan bille jun behar izatea, gure inguru guzie hemen utzita. Handik gure soldata etxera bialtzea, jai ta aste, 2 edo 3 lan eginez eotia... Azken baten, lehen aipatutako behar honi erantzunez, ta gaixto xamarrak bagea, sartuko gattue etorkiñen kartzela zentro hoitako baten, 25 bat lagun hantxe, "kieto" ta etzaizue iruditzen guk e erreakzio gaixto batzuk izango genittukela?

Lengo krisi ziri honi gehittuz, jendea kale gorrin geatu, lantegik itxi, zorrerak daon jendeai diru sarrerak moztu... Ta oaindik nola da posible histori guzi hau ez lertu izana, alare, jendea haserrea kalen egur baten ez ikustea, nik ia ez det ezer ulertzen. Betti, ta oain de bai kritikatzin ditteun frantsez hoik ustet asunto honekin 2 greba orokor in dittuela, ta indar horrek, agintarik estutu ta erantzunkizunak eskatu ere bai.

Hemen berriz, emateu irratico tertuliano predikari hoiek soluzionatu behar dittuela gauzek, langileen sindikatu bakarra aituiot greba orokorra deitzeko beharra.

"Ta oaindik nola da posible histori guzi hau ez lertu izana, alare, jendea haserrea kalen egur baten ez ikustea, nik ia ez det ezer ulertzen. Betti, ta oain de bai kritikatzin ditteun frantsez hoik ustet asunto honekin 2 greba orokor in dittuela, ta indar horrek, agintarik estutu ta erantzunkizunak eskatu ere bai"

Baserrin munduan e beti aitzen da prezio jetxiera baten ondorioz, "leno bai egurre... gaur egungo gaztek ez dakezue bate puldamentuik... Erantzuteko kapazidatea erabat murriztuta daukeu, eta zeatik galduan? Erantzunik argina ne ustez da: zainetan udardoak damakiula! Eskerrek batzu batzuk geatze zeaten, bezeok zuen beharra! Ni neonik, odola damakizueni zuen raza ugaltzeko eskatuko nizueke, eo behintzat udardo batekin mestizoa ateatzea, betire erantzuteko eta aurre hartzeko "ostia" horren behar ikeragarrie ziurtatze alde.

Hala adios! ■

ARALAR KIROLAK

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916



IRASTORZA GARRAIOAK



Iruñea etorbidea, 14A • Usabal industrialdea
P.K. 209 Tolosa • Tel.: 943 670 248 • Faxe: 943 671 865

Euskararen normalizazioan konpromisoak hartuz

TOLOSAKO KIROL ELKARTEAK KONPROMISOAK HARTZEKO PREST AGERTU DIRA

Erredakzio Batzardea

Euskara sasoiari Hitzarmena, Tolosako entitate guztiei zuzendua izango da eta bere helburua, bertako partaide diren talde, elkarte eta entitateek beren jarduna beren kasa eta ahal den autonomiarik handienaz euskaraz bideratzea dela kontuan izanda, Galtzaundi Euskara Taldearen laguntzen artean lehentasuna emango zaie entitateetako kideak euskaraz trebatzeko

Euskararen normalizazioa landu nahian, Galtzaundi Euskara Taldeak, Tolosako Udalaren babesarekin, hitzarmen bidezko ekimena abian jarri du. Bertan, Tolosako entitate desberdinak inplikatu nahi dira, bakoitzak bere eremuan, euskararen normalizazioan konpromisoak hartuz. Ekimenaren izena "Euskara sasoiari" izango da.


laguntzei; hala nola, ikastaroak antolatuz. Bestalde, entitateetako kideek euskaraz egindako testuak zuzentzeko zerbitzuari emango zaio lehentasuna itzulpenaren aurretik. Autonomia hori lortzeko bidean, ondorengo la-

guntzak ere bideratuko dira Galtzaundi Euskara Talde-tik: lehenik, euskarazko baliabide eta materialak. Bertan, Euskaraz funtzionatzeko gaitasuna duten kideen hizkuntza autonomia handitzeko elementuak prestatu

eta entitateen esku jarriko ditu edota non lortu edo erosi daitezkeen jakinarazteaz arduratuko da. Azkenik, testuen zuzenketak eta terminologia kontsultak. Galtzaundik eskainiko duen laguntza guztia doakoa izango da.

Galtzaundi Euskara Taldeak, eginkizun hau aurrera eramateko, bisita bidezko lana burutuko du. Proposamen guztia azaltzeaz gain, Bai Euskarari Ziuertagiriaren eskaintza ere zabalduko da, konpromisoen maila handituz.

Dagoeneko, Tolosako Kirol elkarteekin hasi da Galtzaundi lanean eta aipatu beharra dago, Euskara sasoiari Hitzarmenak, arrakasta handia izan duela. Kirol elkarte asko, euskararen erabilera beraien elkarreetan areagotzeko, konpromisoak hartzeko prest agertu dira, eta 4 urteko iraupena izango duen Hitzarmena sinatzeko ere prest azaldu dira. ■



EUSKARA
SASOIAN

antza



Euskal kantuen oihartzuna Alde Zaharrean

EUSKAL KANTUZALEA DENAK, HILEKO AZKEN LARUNBATEAN, 12:00ETAN TONTOKALEN DU HITZORDUA

Leire Zubeldia

Nori ez zaio kantatzea gustatzen? Ez ukatu, dutxan, edo autoan inoiz kantatu ez duzunik. Izan ere, gizakiok kantatzeko beharra daukagu, eguneroko biziari doinua jartzeko beharra, lara-lara-lara xume bat besterik ez bada ere. Kanturako desio horren isla garbia da, Gipuzkoa eta Euskal Herriko hiri zein herri askotan sortu diren kantu taldeak. Erraietan daramaten zeletasun horretan du jatorria Tolosa Kantari ekimenak ere. Joan den urteko ekainean elkartu, eta kalera atera ziren, dutxan eta autoan ba-

Iparragirreraren kitarra zahartxoaren akordeak batzuetan, habaneraren bainila gozo artean besteetan, Lizardiren Izotz ondoko eguzkiari, Bilintxen maite politikari, Xalbador poetari, herriari, eta herriarentzat, kantatzen dute hileko azken labunbatean eguerdiko 12:00etan Tontokalen elkartzen diren kantuzaleak. Aitorren hizkuntz zaharrean kantatzen dute beti, kantuzaleak baino gehiago, euskal kantuzaleak direlako. Zu ere gonbidatuta zaude. Baldintza bakarra, katurako desioa izatea da.

karka beharrean, taldean kantatzeko eta kantuaren birtartez ondo pasatzeko.

“EUSKAL KANTUZALE KUADRILA BAT”

Ekimenaren sortzailea lagun talde bat izan zen. Kanturako zaletasunak elkartu zituen. “Euskal kantuzale kuadrila bat ginen. Asmo be-

ra genuen denok. Kalean kantatzea”. Eta lagun talde bezala atera ziren iazko ekainean lehenengo aldiz Alde Zaharrean kantatzera. “Ez genuen izenik nahi. Tolosa Kantari, elkarte baten ekimen bezala aurkeztu izan bagenu, jende asko atzera botako zen”. Ez zuten hori nahi. Alderantziz, herritarren par-

te hartzea bultzatu nahi zuten. Ekaineko lehenengo saio hartan lortu zuten hori, eta baita gaur arte egin dituzten irteera guztietan ere. “Hori bai, lehenengo aldi hartarako saiakera berezia egin genuen gutxieneko pertsona kopuru bat biltzeko. Aurreko gauean urduri ginen zer erantzun jasoko genuen jakin nahian”. Izan ere, iazko ekaina baino lehen Tolosan egin dira kantu-jira sortzeko saiakerak. “Lizardi elkarteak egin zuen saiakera bat, baina ez zuen arrakastarik izan. Amarotz auzoan ere bazegoen kantu talde bat, eta hauek ere egin zuten ahalegina”. Azkenean, lortu zen Tolosa Kantari jar-

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

tzea. 30 lagun inguru bildu ziren Tontokalen, eta hasiera indartsua eman asmoz, herriko txistulariak batu zitzaizkien.

HILEKO AZKEN LARUNBATEAN 12:00ETAN TONTOKALEN

Halaxe egin zuten hitzordua Tontokalen joan den ekainean, eta horrelaxe jarraitzen dute oraindik. “Batetik, eguerdia ordu egokia

prentsaren bidez egiten dute deialdia. Gonbita luzatu gabe ez dadila geratu behintzat!

Esandako egunean eta orduan Tontokalera azaldu nahi duenak, ez du baldintzarik bete behar. Ez da beharrezkoa ahots ona izatea, ezta entsaiatzea ere. Badirudi ordea, Tolosakoek oso ondo abesten dutela. “Ekainetik hona ez dugu aterkirik behar izan”, esan dute ekimeneko kideek txantxetan. Dena den, entsaiatu nahi duenak izaten du horretarako auke-

dea, eta kantu bakoitza non abestuko duten erabakitzen dute. “Saioa, liburuxka bat prestatzen dugu hogeita hamar kantu ingururekin. Gero, horien artean aukeraketa bat egiten dugu”. Kantu-jirari aktualitatea ematen ere saiatzen dira. “Martxoko azken larunbatean, Euskaraena astea zela eta, eta Korrika martxan zegoenez, euskarari buruzko kantu mordoa abestu genuen. Berdin egiten dugu Iñauterietan, Gabonetan eta abar”. Bestalde, larunbat bakoitzean kantu berri bat sartzen saiatzen dira antolatzaileak, “kantu berriak ikasten joateko”. Zalantzarik gabe ordea, saiorik ederrenak, hiru, lau edo bost aldiz kantatutako kantuekin ateratzen dira. “Jendeak ez du paperera begiratu beharrik, konfidantza hartzen du, eta ausartago, ozenago abesten du”. Tarteka, bigarren ahotsak ere entzuten omen dira.

*“Ikaragarria da!
11:55ean inor ez da egoten Tontokalen, eta 12:00ak ematean leporaino betetzen da”*

honetan, Iparragirreran kantatuak, *Habanera* edo *Xalbadorren Heriotzean*, saioa abesten dituzte.

AHOTSA ETA MUSIKA

Tolosa Kantari, ahots sendoez gain, herriko musikari talde ezberdinek osatzen dutela esan liteke. Izan ere, bat ez bada bestea, kantuzaleek beti izaten dituzte musika instrumentuak lagun. “Izugarrizko suertea daukagu. Oso erraz lortzen ditugu musikariak. Gainera, batzuetan eurak eskaintzen dira. Estimatzekoa da hori!”. Ekainera arteko saio guztie-



Musikariak ere lagun izaten dituzte beti. Ekainera arteko saio guztietarako musikariak lotuta dituzte.

iruditu zitzaigun, eta bestetik, jendea egunarekin nahastu ez zedin, hileko azkeneko larunbatean aterako ginela erabaki genuen”. Despistaturen bat egonez gero ere,

ra, kantatzera atera aurreko egunetan ezartzen duten entsaioan. Prestaketa handirik egiten ez badute ere, larunbatean abestuko dituzten kantuak, egingo duten ibilbi-

“Aukeratzen ditugun kantuak alaiak izaten dira gehienetan. Eta alaiak ez badira ere, gozoak izan behar dute, jendea berraino sartzen zaizkion horietakoak”. Era

tarako musikariak lotuta dituzte jada. “Baina noski. Ez dugu jendearen prestutasunaz baliatu nahi. Saiatzen ari gara, txandaka-txandaka, denei jotzeko aukera ematen,

horrela, batek, urtean hiru saio egin beharrik izan gabe, denek urtean bat egin dezaten". Bonberenea eta Amartzeko Txarangak, txistulari banda, akordeoi taldea, trikitilariak... izan dituzte lagun orain artean.

LOTSARIK GABE, KANTATU

"Ikaragarria da", diote Tolosa Kantariko parteideek, "eguerdiko 11:55ean inor ez da egoten Tontokalen, eta 12:00etan leporaino egoten da". Jendeak ondo gogoan izaten du non eta noiz den hitzordua eta ordua iristean bertaratu egiten da. "Batzuk kantatzera etortzen dira, beste batzuei ordea entzutea gustatzen zaie". Lotsagatik kantatzeko gogoz geratzen denik ere ba omen da. "Jendeak pentsatzen du entsaio-rik egin gabe ezin dela ondo kantatu eta isildu egiten da. Hori ez da horrela ordea. Kantu bat ez badakizu, isildu eta entzun. Baina ezagutzen duzun kantu bat iristen denean, utzi lotsak alde batera eta abestu!". Argi utzi nahi izan dute, Tolosa Kantari ez dela kantu emanaldi bat. "Guk ez dugu publikoaren txalorik bilatzen. Helburua

ez da jendea txunditzea, kantatuz ondo pasatzea baizik".

Ordu eta erdiz ibiltzen dira Tolosako Alde Zaharrean. Tontokalen biltzen da jende gehien. "100 lagun inguru elkartzen gara hasieran. Gero, batzuk bidean gertatzen dira, eta jende berria sartzen da". Adin guztietako pertsonak batzen dira kantura, eta kanpotik etorritakoak ere izaten dira tarteka. "Horregatik jendeak ez du erreparorik izaten taldera batzeko, eta kuadrila polita osatzen da". Hori bai, gazte gutxitxo ikusten dute aukeran. Euskal kantuak gazteak erakartzen ez dituen sailale al da hori? "Agian, geurea da errua, oraingo belaunaldi gazteei euskal kantuak transmititzen jakin ez dugulako". Gazte zein heldu, hileko azken larunbatek beste kolore bat izaten dute Tolosan.

EKAINERAKO KANTU LIBURUXKA

Aurten, San Joan jaien barruan egokituko da ekaineko azkeneko larunbata. Tolosa Kantarik lehenengo urtea beteko du egun horretan. Urteurrena ospatzeko, kantu liburuxka bat ateratzeko



lanean ari dira. "100 kantu inguru biltzen dituen liburu bat argitaratu nahi dugu, geure saioetan oinarri bat edukitzeko". Tolosako elkarreketara jo dute egitasmoan parte hartu nahi duten galdetuz. Orain, elkarrean erantzunak jasotzen ari dira. "Parte hartzen duten elkarrekin diru laguntza txiki

bat emango digute eta trukean liburu mordo bat emango zaie elkartean eduki ditzaten". Aitzitik, Tolosa Kantariren helbururik behinena kantatuz ondo pasatzea bada ere, kanturako jenera bultzatzea, eta euskal kantuak ondorengo belaunaldiei helarazteko modua ere bilatzen ari dira. ■

Beti alai jatorria

Garaian garaiko janariak eta arraikiatan bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa



ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

KONSULTA PSIKOLOGIKOA

Iñigo Ximénez
Psikologoa eta terapeuta gestaltikoa

Sta. M^a de la Asunción klinika


Balorazio psikologikoa:
ebaluzioa eta orientazioa
Psicoterapia prozesua

ZABALA DESGUAZEAK

Kudeatzaile baimenduak EU2/111/04



Beotibar industrialdea, 18 - BELAUNZA
Tel./Faxa: 943 671 790 - Mugikorra: 696 593 347



Baserriko produktu naturalak

Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499

Gozotegia Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

TOLOSA >>> APIRILAREN 5EAN IZANGO DA. AURTENGO ALDIA GAKOA IZANGO DA MARTXAREKIN JARRAITU EDO EZ ERABA

Araxes ibaiaren arroa ezagutzeko IX. i

Amarotz Auzo Elkaratek antolatzen duen Araxesko itzuliaren IX. aldia izango da aurtengoa. Apirilaren 5ean, goizeko 7.00etan abiatuko dira ibiltariak Amarotz auzotik, 9 eta 11 ordu arteko ibilaldia burutzeko. Abiatu aurretik, goizeko 6:00etatik 6:45era, izena emateko aukera izango da. Antolatzaileek Tolosako eta eskualdeko jendea animatu nahi dute parte hartzera. Edizio honek izaten duen erantzunaren arabera izango baita itzuliaren etorkizuna.


Leire Zubeldia

Hemezortzi urte daramatza Amarotz Auzo Elkarateak, bi urtez behin Araxesko itzulia antolatzen. Hala ere, mendi ibilaldi honen jatorria, 1989an, elkar-tearen 15. urteurrena ospatzeko antolatu zuten mendi martxan dago. “Amarotz Auzo Elkartean, hasieratik argi izan dugu auzoaren beharrak betetzeaz gain, herriri irekita egon behar girela, eta horregatik, beti saiatu gara herri mailako ekintzak egiten”, azaldu dute mendi martxaren antolatzaileek. Filosofia horri kasu eginez, Amarotzetik abiatu, eta Intxurre, Bidania, Herniozabal, Irura, Uzturre eta Leaburu zeharkatzen zituen fondoko mendi martxa antolatu zuten. “Oso harrera ona izan zuen. Jende askok hartu zuen parte. Baina ibilaldia amaitzean, denek aipatu zuten gogorregia zela”.

Arrakasta ikusirik mendi ibilaldiarekin jarraitzea erabaki zuten auzo elkartean. Hori bai, parte hartzaileen iritziak kontutan hartuta, beste era bateko ibilaldia bat pentsatzen hasi ziren. Era honetan osatu zuten gaur egungo ibilbidea, Araxes ibaiaren arroa inguratzen duena.

INGURUKO EZAGUTZEKO HELBURUZ

Ibilaldi xamurrago bat egiteaz gain, inguruan daukaguna ezagutzeko helburuarekin sortu zuten Araxes ibaiaren arroa inguratzen duen ibilbidea. 9 eta 11 ordu artean egiteko ibilaldia izan arren, ez da lehenengo hura bezain gogorra. “Noski, prestatuta egon behar duzu, baina mendian ibiltzera ohituta dagoenak erraz egin dezake”. Ondo dakite hori azken hamazortzi urteetan ibilaldia egin duten parte hartzaileek. “Tolosa bertakoak, eskualdekoak eta kanpotik etorritakoak ere izan ditugu. Aurtengo edizioan esaterako, Durangaldetik eta Arabatik etorritako ibiltariak daude”. Parte hartzeari esker iraun du mendi martxak gaur arte. Baina ez da hain bide xamurra izan. Zailtasunak ere izan dituzte: “Amarotz Auzo Elkaratea ez da federatutako mendi elkar-te bat, eta honenbestez, guk antolatzen dugun mendi martxa ezin da Gipuzkoako Federazioaren mendi martxen egutegi ofizialean txertatu”. Honenbestez, urte bakoitzeko egutegian euren txokoa bilatzen ibili behar izan dute, beste mendi martxa batekin egokitu ez zedin.



“Batzuetan ondo atera zaigu, beste batzuetan ez”.

AURTENGOAN HAINBAT ALDAKETA

Duela bi urte egin zen azken mendi ibilaldian, 45 parte hartzaile izan ziren. “Oso gutxi, 120 eta 180 ibiltari izan dituzten edizioekin konparatuz gero”, diote. Azken aldietan, parte hartzaileen kopurua pixkanaka nola jaisten joan den ikusi dute Amarotz Auzo Elkartean, “mendi martxek izugarriko gorakada izan duten garaian gainera”. Gainbehera honen arrazoiak topatzen saiatu dira. “Egutegian txoko bat aurkitzeko zailtasunak gain, agian 9-11 orduko ibilaldia luzeegia da, beste

elkar-teek antolatzen dituzten 7 ordukoekin alderatuz. Kontutan izan behar da gainera, beste martxetan, parte hartzaileen artean mendiko materiala eta bestelako sariak zozketatzen direla. Guk ordea ez dugu parte hartzaileen truke dirurik eskatzen. Hasieratik mantendu dugu irizpide hori”.

IX. aldi honetan, elkartean egin dituzten hausnarketatik abiatuta, aldaketa garrantzitsu bat egin dute. Azken ibilaldia maiatzan egin zen, ibilaldiz josirik zegoen hilabete batean. Aurten apirilaren 5era aurreratu dute. “Aizkardiko eta Andoaingo mendi martxen artean kokatzea pentsatu dugu, ea horrela jende gehiago ani-

AKITZEKO


ibilaldia

“Aurtengoa azterketa moduko bat izango da martxarekin segi edo ez erabakitzeke”

matzen den”. Aldatu ez duten elementua, mendi martxaren doakotasuna da. Ibilbidea ere berdina izango da, eta ohiko anoa-postuetan, salda, kafea, ura, laranjak, limoiak eta tomateak jarriko dituzte ibiltarien eskura.

ALDI ERABAKIGARRIA

Tolosako Auzo Elkartetik diotenez, aurtengo aldia azterketa moduko bat izango da, mendi martxa antolatzen segi edo ez erabakitzeke. “Era honetako ekintza batek, 40 pertsona inguruko lan taldea behar du, eta hori esfortzu handia da auzoarentzat. Aurrekontua berriz beti berdina da, aurrerapen dexentarekin jokatu behar baita gutzia prest edukitzeko, eta hortaz, parte hartzaile kopuruak ez du inbertsioa baldintzatzen. Azken aldia bezala, 45 pertsona bakarrik animatzen badira, pentsatu egin beharko genuke datozen urteetan mendi martxa antolatzen jarraitzea merezi ote duen edo ez”. Apirilaren 5eko ibilaldiak izaten duen emaitzaren arabera hartuko dute erabakia. Izan liteke



Araxesko itzuliarekin orain arte bezala jarraitzea, honen antolaketa bertan behera uztea, edo beste aldaketa batzuk (filosofia, ibilbidea, data...) eginez proba egitea.

Guzti honengatik, aurten bereziki mendizaleak animatu nahi dituzte Amarotz Auzo Elkartekoek. Izen ematea 656.008.957 telefonoan edo auzoetxe@hotmail.es helbide

elektronikoan egin daiteke. Baita ibilaldiaren egunean, Amarotz auzoan bertan ere, goizeko 6:00etatik 6:45era bitartean. Ibilaldi on!

ZETA^S_I

MUNTAKETA ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219

GORRI

**Paper manipulaziorako makina eraikuntza
Konponketa eta mantenimenduak**

Apatta industrialdea. Baratzondo D 26. IBARRA
Tel.: 943 671 590. Faxa: 943 673 916

Alaia

kafetegia

Gudari kalea, 10 - TOLOSA
Tel.: 943 652 643

TOLOSA >>> BAZTERTURIK GERATZEKO ARRISKUA DUTEN LANGABETUEKIN EGITEN DU LAN FUNDAZIOAK

MOA, langabeziatik lanpostura zubia egiten

Egoerarik makurrenean dauden langabetuak lan munduan integratu eta lanpostu bat aurkitzeko helburuarekin ari da lanean MOA Fundazioa. Tolosan dauka egoitza, eta bera da, eskualdean *Gipuzkoa Abian* egitasmoa gauatzeko ardura duena.

Leire Zubeldia

MOA Fundazioak, bitartekaritza eta asesoria enpresa frantziar batean du jatorria. Enpresa honen arlo soziala da fundazioa. Estatu mailan egiten du lan, INEMen babesarekin. Programa ezberdinak ari dira aurrera eramaten. Tartean dago *Gipuzkoa Abian* egitasmoa. MOA, Lasarte inguruan, Tolosaldean eta Goierriin ari da programa hau gauzatzen, eta Tolosan dauka egoitza, Korreo kaleko 12. zenbakian. Bertan egiten dute lan Maria Eujenia, Juncal eta Amaiak. Eurek azaldu dute zein den fundazioaren eginbeharra.

LANGABETUARI LAN POSTUA AURKITZEA

“Gure helbururik behinena, gugana etortzen diren pertsona guztiak lan munduan integratzea da. Baina helburu erreala, gutxienez gure erabiltzaileen %42ari lanpostu bat aurkitzea izango litzateke”. MOA Fundazioak INEMen babesarekin dauka. Ofizialtasun horrek erraztu egiten die enpresetako atak jotzeko unea.

MOA fundazioan, bazter-



Juncal, Maria Eujenia eta Amaia dira MOA Fundazioak Tolosan dituen langileak. Euren eskutik jasotzen dute erabiltzaieek zerbitzua.

tuak izateko arriskua daukaten langabetuekin egiten dute lan. “Askok ez dute ikasketarik, eta gehienak adinean aurrera doaz. Emakume asko ditugu, eta etorkinak ere bai. Langabezia denbora asko daramaten jendea da”. INEMeko bulegoan hautatzen dituzte egoera makurrenean dauden pertsonak, eta MOAra bideratzen dituzte. Abenduan, programarekin hasi zirenean, 300 lagun hautatu zituzten INEMen, eta MOA fundazioak 140 pertsonara murriztu zuen kopurua, ezinezkoa baizitzaien horrenbeste jendekin lan egitea.

BITARTEKARITZA ETA FORMAKUNTZA

Enpresaren eta langabe-tuaren arteko zubi-lana egiten du fundazioak. “Aurre-

tik, inguruko enpresekin kontaktuan jartzen gara betetzeko dituzten postuei buruz galdetzeko. Postu horiek betetzeko egokienak iruditzen zaizkigun hautagaiak bidaltzen dizkiegu. Hemen amaitzen da gure lana. Hortik aurrera, lan elkarrizketarako hautatuak izaten badira, eurek bakarrik egiten dute bidea”. Langabetuek ez ezik, enpresek ere gustura hartzen dute MOAren eskaintza. “Azken batean, eskura jartzen dizkiegu behar dituzten langileak”.

Bitartekaritza lanaz gain, langabetuei formazioa ere eskaintzen diete Korreo kaleko egoitzan bertan. Astero, lana aurkitzeko teknikak jorratzeko saioak egiten dituzte. “10 ed 12 pertsonako taldeekin aritzen gara. Denetik erakusten diegu: Curriculu-

ma edo aurkezpen gutuna nola egin; interneten lana nola bilatu; alternatiba laboralak landu...”. Formakuntzaz haratago, euren erabiltzaileak motibatzea ere egokitzen zaie. “Askotan, psikologo lana egin behar izaten dugu. Bizi duten egoeratik borrokatzen jarraitzeko gogorik gabe egoten dira, eta inoiz lan egin ez duen lanpostu batean aritzeko beldurra izaten dute”. Bakarkako saioak ere egiten dituzte, orientazio eta arreta pertsonal hori behar dutela uste baitute.

Programak urte beteko epea dauka. 140 pertsona horiekin jarraituko dute lanean, denei lanpostu duin bat aurkitzeko helburuarekin. “Datorren urtean Tolosan jarraitzen badugu, seinale ona izango da”, adierazi dute. ■



Maite Gurrutxaga amezketarrak egin ditu *Gau Ilunekoak*, Joseba Sarrionandiaren azken lanaren ilustrazioak.

Argazkiak: Kabi Ubeda

Maite Gurrutxaga

“Heltzen hasten garenean marrazteari uzten diogu, marrazkiak egitea ez baita gauza serioa kontsideratzen”

“TXIKITATIK IRAKURRI DUT SARRIREN OBRA, ETA HORREK APARTEKO MOTIBAZIOA EMAN DIT LAN HAU EGITEKO GARAIAN”

Amaia Goikoetxea O.

Joxemari Iturralde honakoa zioen liburuaren aurkezpenaren egunean: “Halako liburu bitxi eta zail bati marrazkiak jartzea ez da lan erraza”. Bitxia denik, behintzat, ezin uka.

Bai. Zirrara eragiten duen liburua da, eta aldi berean asko iradokitzen duena. Hasieran argitaletxeak frogatzea bat eskatu zidan, eta lehen frogatzea hura oso figuratiboa atera zitzaidan, pertsonaiak irudikatu egin nituen. Editoreak eta diseinatzaileak ezkutuagokoa zen zerbait proposatu zidaten, Sarririk ez baitu inongo momentutan pertsonaiak nolakoak diren esaten, ezta pertsonaia horiek bizi diren lurralde hori nolako den ere. Horregatik, deskriptiboe-

Joseba Sarrionandiaren azken lana ilustratu du Maite Gurrutxagak, Gau ilunekoak. Amezketarra, Arte Ederretan lizentziatu zen, eta Bartzelonan bizi da egun. Amezketara egin duen azken bisitetako batean harrapatu genuen, eta ordubetetxo bat lapurtu genion bere eskutik ilustrazioaren munduan murgiltzeko.

gia ez zen eta argiei eta ilunei garrantzia ematen zien lan bat egitea erabaki genuen. Elkarrekin hitz eginez aurkitu genion puntua liburuari, horrela ikusi genuen bidea, eta hortik jarraitu genuen. Egia esan, liburuak berak bideratu gaitu.

Ilustratu beharreko obra Joseba Sarrionandiarena izateak emango dio lanari karga bereziren bat, ezta?

Bai. Argitaletxean eskuizkri-

buia jaso eta niri helarazi zidatenerako aurreikuspenak jada oso handiak ziren. Dena den, prezioa ez da gehiegizkoa ere izan, argitaletxeak askatasuna eman baitzidan nik nahi nuen eran lan egiteko. Hala ere, zuk zure lana nora doan eta zer oihartzun izango duen badakizunean, prezio pixka bat sentitzen duzu, bai. Baina ilusio handiz hartu nuen lana, eta oso gustuko izan dut berau aurrrera eramatea.

Zu zeu ere Sarri zalea izanda, ez da harrizkoa egitekoa ilusioz hartu izana.

Asko poztu nintzen, bai, lana eskaini zidatenean. Pare bat urte lehenago nik e-mailak bidaliak nituen argitaletxe ezberdinetara eginak nituen hainbat lanekin. Irudi haiek artxiboetan gorde zituzten, Sarriren lana eskuartera iritsi zitzaienean artxiboetara jo zuten, eta pentsatu nik egindakoa Sarririk idatzitakorekin bat etor zitekeela, irudi ilunak baitziren, atmosferikoak. Frogatzea bat eskatu zidaten, eta hortik etorri da guztia. Txikitatik irakurri dut Sarriren obra, eta horrek ere aparteko motibazioa eman dit lan hau egiteko garaian.

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

Ilunak eta argiak dira zure marrazkiak, testuak berak hala eskatuta.

Horren inguruko azalpen on bat eman zidaten: irakurleak liburua gainetik begiratzean marrazkien bidez egin zezala iluntasunetik argitasunera eta

da hain zuzen ere, zuk gehiago edo gutxiago zapaldu, milioika matiz ezberdin lor ditzakezula, beltzetik zuriraino, grafito horren gogortasunaren arabera. Ilunekin arkatx mota bat erabiltzen nuen, argiekin beste bat, zuriak ere mantendu..., horrekin jokatu nuen.

Liburua aurkezterakoan zera zenioen: "Sarrionandiak irakurle-

nukeen hain barneratuta edukiko. Lanean hasi nintzeanean ipuina oso neureganatuta neukan, eta argitaletxearekin argi eta garbi adostuta zein bide hartu. Pertsonaiak ezkutuan geratuko zirela erabaki nuen, itzal bat izango zirela, edo silueta bat kontrargian... Itzal edo silueta horrek izango duen aurpegia, kolorea..., bakoitzak jar diezaiola nahi duena.

Zerorrek aipatu duzu sarritan erabili ohi duzula arkatza ilustrazioak egiteko; azken honetan, Karlos Linazasorearen Zein beste mundukoa poesia liburuan... Hura al duzu lan tresna kuttuna?

Bai. Kolorea ere oso gustuko dut baina paper batekin eta arkatx batekin zure mundua irudikatu ahal izatea eta horretan eroso sentitzea oso gustuko dut. Ez dut asko behar, kalean libretoa batekin egon naiteke, ez daukat mahai guztia prestatu beharrik. Eta horrez gain, gehiago naiz trazokoa pintzeladakoa baino; trazoan gustuago, erosoago sentitzen naiz.

Hau ez da izan, inondik ere, ilustratu duzun lehen ekoizpen literarioa. Hor daude, esaterako, Ander Fernandezaren testuak, autoedizioan egindakoak.

Ander Bartzelonan ezagutu nuen eta tandem bat egin genuen berehalara: berak idatzi egiten zuen eta nik marraztu. Nik gustuko nituen bere testuak eta berak gustuko nire marrazkiak, eta elkarrekin zerbait egitea erabaki genuen, argitaletxeren batek deitu zain egon gabe, edo guk geuk argitaletxeren bati deitu gabe. Autoedizioa mundu polita da, erabaki guztiak guk hartzen ditugu: formatua, tipografia, maketazioa, marrazkiak non joango diren, zein koloretan... Dena erabaki dezakezu, eta hori

aukera polita da. Autoedizioaren mundua oso erakargarria egiten zait niri, ez baitago inolako presiorik. Horregatik gustatzen zait, oso gustura sentitzen naiz bertan. Autoedizioaren inguruko ikastaro bat egin dut, eta bertan bai irakaslearekin, baita gelakideekin ere egitasmoak jartzen genituen martxan. Bakoitzaren mundu txiki hori kanporatzeko aukera aproposa da, mugarik gabe.

Arte Ederrak ikasi ondoren ilustraziotan sartu zinen. Aukeratu ala halabeharrez?

Arte Ederretan eta ilustraziotan nekez hasiko da norbait halabeharrez eraginda. Nik Arte Ederrak egin nahi nuen, hori oso argi neukan. Ez nekiena zen horren barruan zer egin nahi nuen, pintura, grabatua, argazkigintza..., baina banekien kontua hortik zihoala. Arte Ederretan sartu nintzeanean irakasgai ezberdinetan probatzen hasi nintzen, eta esperimentatzen, eta konturatu nintzen egin nahi nuena ilustrazioa zela, formatu handirik gabe edo helburu izugarrikerik gabe, orri batekin eta arkatx batekin zoriontsua nintzela, ez nuela askoz gehiago behar. Eroso sentitzen nintzen bitarteko horretan, lengoia horretan. Gainera literatura ere oso gogoko dut, beraz pozik sentitzen naiz mundu honetan.

Literaturatik kanpo, beste diziplina batzuei ere eskaini dizkiezu marrazkiak. Musikaren arloan, esaterako, Kerobia taldearentzat eginiko lana izan liteke horren adibiderik ezagunena. Asko aldatzen al da kontua diziplina batetik bestera?

Aldatzen den bakarra euskarria da, bitartekoa, askotan literaturan eta musikan gaiak oso antzekoak izaten baitira. Kerobiakoekin lan egin du-



berriz iluntasunera zihoan bide bat, animazioko film bat balitz bezala. Pertsonaiak egiten duen bidea, herrialde horri gertatzen zaiona, lehenengo begiratuan ikus zedila. Horregatik hasten da liburua guztiz beltza den ilustrazio batekin, eta horregatik amaitzen da ilustrazio berarekin.

Erraza izan al da ideia hori islatzea?

Nik arkatzarekin egiten dut lan askotan, eta arkatzak ematen dizun gauza on bat horixe

ari irudimena erabiltzeko gonbita egiten dio, eta nik ez nuen hori zapuztu nahi marrazkien bidez".

Mila buelta eman nizkion gaiari. Testua irakurri nuenetik lanean hasi nintzen arte, proiektua abian jarri zen arte hilabete eta erdi igaro zen, eta denbora horretan guztian ipuina behin eta berriz irakurri eta bide baten bila ibili nintzen. Eta eskertzen dut, agian, denbora hori izan ez banu ez baitzitekeen atera dena aterako, ipuina ez bai-

danean abeslariak abestien letrak eta kantuen lehen grabaketak bidaltzen dizkit, eta elkarrekin hizketaldiak izaten ditugu, nondik jo dezakegun ikusteko, funtsezko ideia edo mezua zein den, zerk sortzen duen disko guztia, zein den hazia, barruko sentimendua... Eta hortik abiatuta lanean hasten gara, letretan eta melodietan oinarrituz. Kasu honetan inspirazio iturri bat gehiago duzu, musika, melodiak. Gustuko formatua dut egia esan.

Ilustratzaileen lanari normalean ez zaio aitortzen duen garrantzi eta balio guztia. Zer egin behar-ko litzateke hori alda dadin?

Alde batetik uste dut lan handia ilustratzaileok egin behar dugula, geure lana duin bihurtzen jarraitu, geure lanean sinesten jarraitu, eta elkarrekin handiagoa den zerbaiten aldeko apustua egin. Horrez gain, helduentzako literaturan ilustrazioak bere tokia izan dezakeela sinetsiko balitz, jendeak garbi baleuka ilustrazioak helduentzat ere izan daitezkeela, ilustrazioek liburuak apaindu ez ezik osatu eta aberastu ere egin ditzaketela, lana askoz errazagoa izango litzateke. Umeentzat egiten diren liburuak ikusi besterik ez dago, asko eta asko izugarri politak dira, gai landuekin, marrazki ederrekin, eta edizio zainduekin. Lan izugarri interesgarriak daude. Eta uste dut helduentzat ere ez legokeela soberan, inoiz ez dagoela



Maitek, Ander Fernandezen testuak, eta Kerobia musika taldearen lanak ilustratu ditu besteak beste.

soberan lana bera aberastuko duen beste bitarteko artistiko bat. Uste dut txikitatik jaso dugun heziketa dagoela ilustrazioei garrantzirik ez ematearen atzean. Heltzen hasten garenean, jende gehienak marrazteari uzten dio. Txikienez zerbait baltiz bezala hartzen da marraztea, eta ez dut uste hala denik. Beste adierazpen modu bat da, baina txikitatik esaten dizute hamalau urterekin beste bide batzuk hartzen hasi behar duzula, marrazten jarraitzen baduzu ameslari bat zarela, despistatu bat..., konnotazio txar samarrak ditu. Heltzen hasten garenean heldu itxura eman nahi dugu, serio itxura, eta marrazkiak egitea ez da gau-

za serioa kontsideratzen; niretzat ikaragarri serioa da noski, baina ez da hala hartzen, eta horregatik jende askok alde batera uzten du.

Ba al duzu eskuartearen beste istoriorik marrazkiz janzteko?

Zorte handia daukat nire inguruan sormen handiko jendea dudalako, asko inspiratzen nauen jendea. Denekin proiektu txikietan murgiltzen naiz, eta hori niretzako luxu bat da. Esaterako, nire anaia testu batzuk idazten ari da, nik irudiak jarriko dizkiot eta autoeditatu egingo dugu. Pixkanaka ari gara, lan geldoa baita. Askok hitz egiten dugu, testu bakoitzarekin zer kontatu, nola kontatu eta zeren bidez, zein

izakik edo ze objektuk irudikatuz dezakeen istorio hori... Idazten duten lagun guztiekin, edo argazkigintza lantzen dutenekin, edo animazioan dihardutenekin... horiekin konektatzen baldin baduzu beti ateratzen dira proiektuak, eta nik zorte hori daukat. Nire gelakideak ere beti gauzak egiteko prest daude, Ignasi Blanch ilustratzaileak ere, irakasle dudanak, erakusketak antolatzen ditu, eta gurekin kontatzen du erakusketa horietarako... Une honetan, gidoilaria den lagun batekin, Eñaut Tolosarekin, komiki bat egiten ari naiz. Gidoia luzatu zidan, ikaragarri gustatu zitzaidan eta lanean hastea erabaki genuen. ■


CDI Informatika
 Osagaiak
 Desarroiloak
 Instalakuntzak
GUDARI KALEA, 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
 TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916


INDUSTRIARAKO HONIDURAK
 Iparragirre auzoa, 1-behea
 20400 Tolosa
 Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462


Mertzeria eta konponketak
 Zumalakarregi etorbidea, 7
 TOLOSA


 Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

TOLOSA >>> MARTXAUNDIREN V. ALDIAN PARTE HARTU NAHI DUENAK, APIRILAREN 20RA ARTEKO EPEA DAUKA

Martxan da Martxaundi!

Eskualdeko musika talde edo bakarlari hasiberriei bultzada emateko asmoz Galtzaundi Euskara Taldeak, Martxaundiren V. aldia antolatu du. Ekimenean parte hartu nahi duenak, apirilaren 20ra arteko epea dauka izena emateko.

Erredakzioa

Euskara eta musika uztartzen dituen proiektua da Martxaundi. Galtzaundi Euskara Taldeak, eskualdeko musika talde zein bakarlari hasiberriei bultzada bat emateko helburuz martxan jarritakoa. Irizpide hauek oinarri hartuta, bere ibilbidetxo egin du egitasmo honek. Helburu berberekin, Martxaundiren V. edizioa abian da dagoeneko. Aurreko hileko hogeita seian aurkeztu zen egitasmoa prentsaurrean. Jon Ander Ubedak eta Juantxo Zeberio egin zituzten aurkezpen lanak. Biak dira Galtzaundikideak, musikariak eta Martxaundin parte hartutakoak. Euren musika ibilbidean talde ezberdinetan jo dute, eta egun, musikaren munduan jarraitzen dute. Beraiek bezala, eskualdeko musikari ugari baliatu zuten Martxaundi musika munduan lehenengo pausoak emateko.

Martxaundiren lehenengo edizioa, 1992an egin zen. Geroztik, hiru eta bost urte arteko maiztasunarekin antolatu da. Bigarren aldia 1995ean izan zen, hirugarrena 2000. urtean eta laugarrena 2003an.

ESKUALDEKO TALDEEN KANTU BILDUMA

Era simple batean azaltzeko, Martxaundi, euskarazko kantuen bilduma da, Tolosaldeko taldeen parte hartzearekin egiten dena. 1992ko lehen edizioan bezalaxe, V. aldi honetan ere, deialdi berezia egiten zaie eskualdeko musika talde hasiberriei. Martxaundik eskaintzen duena, kalitate onean kantu bat grabatu, eta cd moduan, Tolosaldean eta kanpogan zehar hedatzeko aukera da.

Kantu bilduma kaleratzeaz gain, aurreko aldietan bezalaxe, Martxaundiren izenpean hainbat emanaldi antolatuko dira, parte hartzaileek euren kantua zuzenean jotzeko aukera izan dezaten.

Juantxo Zeberio

“Martxaundi oso aberasgarria izan zen guretzat”

Juantxo Zeberio musikari tolosarrak Martxaundiren bi alditan parte hartu du. Esperientzia aberasgarri gisa definitu du proiektua. “Guretzat, musika talde bezala, lehenengo esperientzia profesionala izan zen. Medio gutxi genituen, baina oso motibatuta ginen. Orain, distantziarekin begiratuta, ikusten dugu oso aberasgarria izan zela guretzat. Martxaundik, musikaren munduan hanka bat sartzeko aukera ematen du. Gainera, eskualdeko beste musika taldeekin harremanetan jartzeko balio du. Oso oroitzapen onak ditut”.





MARTXAUNDIN PARTE HARTZEKO

Aipatutako aukerez gozatu ahal izateko lehenengo pausoa izena ematea da. Horretarako, apirilaren 20ra arteko epea dago. Galtzaundiko egoitza bertaratuta, 943.65.50.04 telefonora deituta, edo kultura@galtzaundi.com helbide elektronikora idatzita egin daiteke izen-ematea. Martxaundin parte hartzeko baldintza bakarrak, euskaraz kantatzea, eta kontratu disko-grafikorik ez izatea dira. Izen ematerakoan, taldearen izena, formazioa eta musika estiloa zehaztu beharko dira.

Apirilaren 20an, izena emateko epea ixten denean jakingo da zenbat taldek parte hartuko duten V. aldian. Aurreko aldi guztietan, izena emandako guztiei eman zitzaien aukera kantua grabatzeko. Aurtan ere hala izango da, baldin eta, aurreikuspenak gainditu, eta ekimenak har dezakeena baino talde gehiagok izena ematen ez badute.

Martxaundiren V. aldiko parte hartzaileak zehaztu ondoren, ekainean egingo dira grabaketak. Bien bitartean, denek izango dute tartetxo bat Galtzaundi hama-bostekarian, euren proiektua azaltzeko. ■

Aurreko aldietako parte hartzaileak

Martxaundi I (1992)

Basajaun: Irrifar gaueko izarra
The Window: Ventanas Pikmik
Asmatu Bat: Ametsa
Haitzetan: Egia
Jun da Bertan: Jun da Bertan.
Deabruak Teilatueta: Nazkatu-rik
Xaximiku: Natura etorkizuna
Kixmi: Kixmi
Marruma: Bukatu da.
Zer habil barrabil: Euskara

Martxaundi II (1995)

Rebeldy tximak: Akabo
Marruma: Nahitaez
Deabruak Teilatueta: Collage
Jo ta okupatu: Infernu alaia
Hard Maon: Etsairik handiena
Trikiti: Amari hor konpon
The Window Ventanas: Friends
Hartu ta sartu's band: Pintxanatar-
rakk
Uncle Mussels: Eskerrak
Atila y los Unos: Batua
Soraio: Nor zara?
Waika: Delta iristezina
Parkingsong's: Funky mama

Martxaundi III (2000)

Triki up: Euskara indartuz
Blusez blai: Blusez blai
Achtung: Sua
Waika: Lorea
Ansia: Eztanda
Fox ill Face: Ezin liteke
Eider eta Oihana: Sta Barbarako
Trintxera
Regimen Brutal: Bukaeraren
hasiera
Rebeldi Tximak: Amen
Muxutruk: Kumbaye
Ozel: Egia aurpegira
Anitz: Tanto hotza
Humus: Nork

Martxaundi IV (2003)

Jone: Estutasuna
Mairen: Hitzaren kartzelan
Inoiz: Egin dezagun bat ama lurrarekin
Denis: Cowboy jeans
Mulambo
Joselito Albahicin: Txoriak txori
Prozak: Hondar ale bat naiz ni
Markel Telleria: Where is my mum?
Ezein: Hitz zertzeladak
Huracan Txabakan: Zeinek?

ZETA^S_I

**MUNTAKETA
ELEKTRIKOAK**

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219

GORRI

**Paper manipulaziorako makina eraikuntza
Konponketa eta mantenimenduak**

Apatta industrialdea. Baratzondo D 26. IBARRA
Tel.: 943 671 590. Faxa: 943 673 916

Alaia

kafetegia

Gudari kalea, 10 - TOLOSA
Tel.: 943 652 643

Lehengo zaleak asetu eta be

KOSTA EGIN DA, BAINA AZKENEAN

Leire Zubeldia

Aurreko hileko hemezortzigarren egunean zabaldu zen ofizialki rokodromoa eta boulder-a. Honekin, Usabal Kiroldegiko lehengo fasea erabat osatuta geratu da. Rokodromoa egiteko asmoa, aspaldikoa da, baina Udalak ez du aurrekontuetan tarterik aurkitu orain arte. Eskaladaren zaleak denbora luzean egon dira zain, baina esperoak merezi izan

Usabal kiroldegiaren proiektuan rokodromoa egitea aurreikusten zen. Aurrekontu arazoengatik ordea, asmoa gauzatu gabe geratu zen. Rokodromoaren proiektua ahaztuta ez, baina ez aurrera eta ez atzera egon da urte hauetan. Azkenean, herriko mendi elkarteekin bultzadari esker, Tolosak badu bere rokodromoa.

du. Inaugurazio ekitaldian, Tolosako agintariek esan zutena berretsi du Aitor Oiarbide, Alpino Uzturre mendi elkartearen lehendakariak: “Euskadiko rokodromorik onenetarikoa dugu. Oso pozik gaude”. Rokodromoak 17 metroko altuera dauka, erkidegoko altuena da eta estatuko altuenetakoa. Gainera teknologiarik aurreratuenarekin egin da. Polea sistema baten bidez, baka-

rrik eskalatu daiteke, segurtasun lanak egiten dituen lagunaren beharrik gabe.

MENDI ELKARTEEN BULTZADAZ


Rokodromoaren proiektua ez aurrera ez atzera zegoela eta, Tolosako mendi elkarteak elkartu egin ziren Udala akuilatzeke. “Proiektua mahai gainera ateratzen zen bakoitzean atzera bota-

tzen zuten. Aurreko urtean, zerbait egin beharra zegoela pentsatu genuen. Zuzenean alkatearekin bildu ginen, eta rokodromoaren beharra aipatu genion”, azaldu du Aitor Oiarbidek. Alpino Uzturre Oargi mendi elkartearekin jarri zen harremanetan, elkarrekin indar gehiago egingo zutelakoan.

Alpinoko lehendakariaren ustetan, “Udalak bultzada bat behar zuen. Uste dut, rokodromoa zerbait arriskutsua bezala ikusten zutela, eta istripuren bat gerta zitekeenaren kezka zutela”. Mendi elkarteekin babesari esker, azkenean aurrera atera zen Usabalen rokodromoa egiteko ideia. Hau eraikitzeke garaian ere, Udaleko kirol sailak Oargi eta Alpino mendi elkarteekin harremanetan jarraitu zuen. Oargiko Juan Manuel Serranok aipatu duenez, “Asier Izagirrearekin jarri zen kontaktuan Udala. Oargin gutxiatan egoteko modua duenez, gukhartu genuen rokodromoaren gaia”. Harremanetan egon dira bai, baina Serranoren hitzetan, “rokodromoa egiteko garaian ez dute Oargin iritzia kontutan hartu”. Hala eta guztiz ere, Oargin gustura daude Usabalgo rokodromo eta boulder-arekin.

KIROL ESKAINTZA BERRIA

Herriko mendi elkarteak rokodromoarekin tematuta egon badira, beharra ikusten zutelako izan da. Izan ere, eskualdean eskalatzeko duen jende ugari dago. Oargin bertan rokodromoa dute elkarteekin zaleak arra asatzeke. Hala ere, Tolosak bere roko-



Berriak sortzeko rokodromoa

IN, TOLOSAK BADU ROKODROMOA

dromoa behar zuela uste zuten. “Ibarrako kiroldegian boulder-a egin zutenetik, jende asko zebilela somatzen genuen. Tolosatik bertatik ere jende asko joaten zen Belabietako hormara”, dio Oiarbidek. Euren ustez, eskalardako afizioa bazegoen, eta rokodromoa jarritz gero, pertsona gehiago zaletuko ziren. Honenbestez, Usabalgo rokodromoak, lehengo zaletuak asetzeko eta berriak sortzeko balioko du. Azken batean, Usabal kiroldegiak egiten duen beste kirol eskaintza berri bat da eskalada eremua.

Aipatutako zaletu berri horien artean, asko gaztetxoak izango dira. Mendi elkarteak behintza gaztetxoekin lan egiteko ilusioz daude. “Europako herrialde askotan, soinketa irakasgaietan, eskalada lantzen dute. Izan ere, kirol hau oso onurgarria da gaztearen autoestimarentzat, psikomotrizitatea eta oreka lantzen baititu”, azaldu du Aitorrek. Kirol honen onurez jabetuta, eta rokodromoari probetxu ateratzeko, bai Alpino Uzturrek eta bai Oargik, gaztetxoentzako eskalada ikastaroak antolatzeke asmoa dute. “Tolosako Udala, KirolZer enpresa eta mendi elkarteak harremanetan jarraituko dugu ikastaro horiei begira”, baieztatu dute Oiarbide eta Serranok. Bien bitartean, rokodromoa eta boulderra zabalik daude, frogagintza egin nahi duenarentzat. Baldintza bakarra, seguru eskalatzeko irizpideak betetzea da: Katu oinak eta arnesa noberakeraman behar ditu. Bai rokodromoan eta bai boulder-ean, beharrezkoa da soka erabiltzea. Hamasei urtez azpikoek, pertsona heldu baten ardurapean eskalatu dezakete soilik. Hortikaurrera, gozatu! ■




Apirilaren 4tik 24ra arteko hitzorduak

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat: erredakzioa@galtzaundi.com helbidera

ERAKUSKETAK

ARANBURU JAUREGIA

»» Apirilaren 4tik maiatzaren 16ra: Kaledoskopio izeneko erakusketa, Mariano Arsua-garen eskutik. Aste Santuetan ere zabalik, goiz eta arratsalde.



HENIALDEKO OSTATUA

»» Argazki kamera ezberdinak erakusgai. Ostatuaren ordutegian ikusteko aukera.

Z I N E A

LEIDOR

»» Apirilak 4: Un Chihuahua en Beberly Hills, haurrentzako filma 17:00etan. Mi nombre es Harvey Milk filma 19.30ean eta 22:30ean.

»» Apirilak 5: Un Chihuahua en Beberly Hills, haurrentzako filma 17:00etan. Bienvenidos al norte filma 19:30ean eta 22:00etan.



»» Apirilak 6: Mi nombre es Harvey Milk filma 20:30en.

ZINE FORUM

KULTUR ETXEA

»» Apirilak 2: Wonderful Town filmaren emanaldia 19:15ean eta 21:45ean.

M U S I K A

BONBERENEA

»» Apirilak 3: Bad sound system eta Niko (Italia) taldeen emanaldia 22:30ean.

»» Apirilak 4: Bood seekers, Naut eta Lines taldeak zuzenean, 22:30ean.

»» Apirilak 24: Willis drummond eta Sha-

ron stoner 22:30ean.

»» Apirilak 25: Balerdi Terdi eta Fiachras taldeen emanaldia 22:30ean.



EUSKARAENEA

»» Apirilak 3: Benito Lertxundiren kontzertua Leidorren, arratsaldeko 20:30ean hasita.



»» Apirilak 4: Dantzari Txiki Eguna. Dantzariak kalez kale ibiliko dira eta Plaza Berrian

KEY-LAN
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

<i>Donostia</i>	<i>Donostia</i>	<i>Tolosa</i>
<i>San Martin, 16</i>	<i>Garibai, 8</i>	<i>Rondilla, 11</i>
<i>943 425 886</i>	<i>943 420 259</i>	<i>943 670 615</i>
<i>943 420 187</i>	<i>943 430 947</i>	<i>943 671 149</i>

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Arteka
ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

TINDATEGIA

KATZ

Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

kutxa

ITURRALDE
INDUSTRI-HORNIDURAK

Donostia etorbidea, 17 - Tolosa
Tel.: 943 655 865

eskainiko dute emanaldi nagusia, iluntzeko 20:00etan. Ondoren afaria izango da Zerkausian Oxabi taldea lagun dutela.

BERTSOLAR HITZA

OARGI ELKARTEA

»» Apirilak 4: BertsolarHITZA bertso desafioaren finala jokatu da bazkaltzen duten bitartean. Arratsaldeko 14:00etan hasiko da.



TXOLARRE IRRATIA KABTIK PLAZARA

»» Apirilak 4: Kabitik Plazara ekimene-ko azken bertso afaria. Jexux Mari Irazu, Bixente Gorostidi eta Anjel Mari Peñagarikano arituko dira bertsoan. Librean eta gaia jarrita arituko dira. Gaueko 21:00etan jarri dute hitzordua. Sarrerak salgai Galtzaundin, Iurre Elkar-tean eta Raku Tabernan.

Tolosaldean IKASTN

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Ikastaroak

Ikastaroak	Orduak	Hasiera data
GPS eta internet	15	2009/04/13
Isurketak eta bere trataera	60	2009/04/20
Haurrak eta nerabeak zaintzea	200	2009/04/20
Optika laguntzailea	160	2009/04/20
Adimen-minusbaliatuei arreta	200	2009/04/20
Farmaziako saltzailea	200	2009/04/20
Internet + e-administrazioa kzugunea	20	2009/04/20
Oinarizko jostintza	12	2009/04/20
C1-C motatako ibilgailuen gidaria	370	2009/04/20
Arku soldadura	250	2009/04/27
Geriatrico erizaintza laguntzailea	300	2009/05/04

Ikastaro hauei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero edota bestelako ikastaroen informazioa interesatu izanez gero, jar zaitetz harremanetan:

Webgunea: www.ikastn.com

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia

Kokapena: Tolosaldea GMLH Institutua, Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa

Telefona: 943.65.11.47 edo 615.775.678

Posta-e: info@ikastn.com

www.ikastn.com

Guardiako farmaziak

APIRILA

Ostirala, 3

Olarreaga J. (korreo kalea, 2) Tolosa

Larunbata, 4

Morant R. (Zabalaretara, 1) Tolosa

Igandea, 5

Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa

Astelehena, 6

Echeveste, J.M. (Gemikako arb. 3) Tolosa

Asteartea, 7

Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra

Asteazkena, 8

Tolosa M^o Isabel (Nagusia, 7) Tolosa

Osteguna, 9

Olarreaga M. (Marin J. Iraola, 10) Tolosa

Ostirala, 10

Bronté C. (korreo kalea 20) Tolosa

Larunbata, 11

Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa

Igandea, 12

Tolosa M^o Isabel (Nagusia, 7) Tolosa

Astelehena, 13

Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa

Asteartea, 14

Morant R. (Zabalaretara, 1) Tolosa

Asteazkena, 15

Olarreaga M. (Marin J. Iraola, 10) Tolosa

Osteguna, 16

Echeveste, J.M. (Gemikako arb. 3) Tolosa

Ostirala, 17

Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur

Osasun zentroa 943 653 212

Altzo

Medikua 943 654 737

Anoeta-Aikiza-Hernalde

Medikua 943 652 339

Baliarrain

Medikua 943 889 003 (asteak.)

Berastegi-Elduain

Medikua 943 683 361

Bidegoian

Medikua 943 681 134

Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu

Osasun etxea 943 672 411

Ikaztegieta

Medikua 943 653 329

Irura

Osasun zentroa 943 690 720

Tolosa

Anbulatorioa, larrialdiak 943 650 931

San Esteban, hitzordua 943 006 800

Gemikako Arbola, hitzor 943 006 900

Amarozko dispensarioa 943 672 637

Asunzioz klinika 943 675 799

(Gemikaldiak) 943 675 390

San Kosme San Damian

geriatricoak 943 672 932

Udalzaingoa 943 675 858

Ur eta Argia (Tolargi) 943 650 016

Ur zerbitzuak (aberiak) 639 352 156

Iurreamendi egotza 943 670 325

Larrialdiak, Suhiltzaileak 112

DYA 943 672 536

Gurutze Gorria 943 674 888

943 651 425

Ertzaintza 943 673 022

Tolosa Gasa 943 675 320

Lizartza

Medikua 943 682 077

Orendain

Medikua 943 655 595

Oreka

Medikua 943 682 228


MENDIZABAL
abeltzaintza

Baserriko haragia salmenta zuzena
686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa

www.baserrikoaharagia.com
Mendizabal Baserrria
20.248-Arama (Gipuzkoa)

Jarri zure publizitatea
Galtzaundin

943 655 004
publizitatea@galtzaundi.com

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

Muxu- -truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean donak jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

LANA

- **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**
- **Hortz protesioa** eskaintzen da laboregian edo auxiliari lanetan aritzeako. **671 44 66 15**
- Beasaingo Kikara tabernak zerbitzariak behar ditu astebukaerarako eta eguneroko lanerako. Euskara jakitea kontutan ahortuko da. **671 069 097**

ETXEBIZITZA

- **Etxebizitza salgai** izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukalde eta komunarekin. **645 718 536**
- **Garaje bat** alokatzen da Anoetako San Juan kalean.

SALGAI

- **Kotxe bat salgai** BMW 330D full equip 18.000 euro. **629 52 51 50.**
- **Kotxe bat salgai** Matrikula: 8351 JX. Prezioa: 961 euro. **617 863 669.**
- **Artzai txakurra salgai** 617 863 669
- **Spaniel txakur kumea salgai** 678 923 512
- **Lander trakorea (32 zaldi) eta Renault Kangoo (60.000 km) salgai** 617 863 669
- **Espace bat** saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- **kangoo bat salgai** (70.000 km) **Montesa motoa** salgai. 617 863 669

HOROSKOPOA

APIRILAREN 3TIK 24RA BITARTEKO AURREIKUSPENA



ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Aspaldian ez bezalako pasio oneak biziko dituzu bikotearekin. Une egokia da hau buruan duzun inbertsio hori egiteko, gauzak larri badaude aurrerantzean gehiago estutuko baitira eta orduan beranduegi izango da.



TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Ingurukoak gogaitzen dituzu zure umore ospindu horrekin. Horrela jarraituz gero laster entzungo duzu purrustadaren bat. Urduritasunak sabeleko mina eragingo dizu.



GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Egoera zail bat aurkeztuko zaizu. Zirt edo zart egin beharrean aurkituko zara. Erabaki ausartena hartzera animatzen zaitu zure zeinuak. Energia positiboz beteta zaude.



CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Everestera igo eta motxila hutsik. Umilago jokatu beharko zenuke, bestela sinesgarritasuna galduko duzu. Lan eskaintza bat jasotzeko aukera asko dituzu. Interesgarria egingo zaizu.



LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Errutina erosoan izan liteke, baina denborarekin ito egin zaitzake. Egunero zer-bait berria egin beharko zenuke, ariketa fisiko pixka bat adibidez. Intimidade gehiago izateak on egingo dizu.



VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Azken egunetan sentitzen duzun nekearen jatorria elikadura txarra izan daiteke. Onartzen ez badu ere jeloskor dago. Motiborik ez duela erakutsi behar diozu, arazoa benetazkoa bilakatu baino lehen.



LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Eguna luzatzeko desiratzen eta orain zer? Lehen bezala konturatzeko agortzen zaizkizu 24 orduak. Goizago jai-ki, egitekoak hobeto antolatu... Hobeto sentituko zara.



SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Utzi aurreiritziak eta esamesak alde batera. Zuk zure begiekin ikusi behar duzu eta orduan erabaki aukeraren bat merezi ote duen edo ez. Lagunak inoiz ez daude soberan.



SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Argi esaten ez badizu ere askatasun gehiago eskatzen ari zaizu. Ematen diozuna baino denbora gehiago behar du bakarrik edo lagunekin egoteko. Zuri ere ez zaizu gaizki etorriko.



CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Lana egin eta ingurukoak ematen dituzte fru ituak. Horrek ospindu egiten zaitu. Lasai, jakin behar duen horrek bada-ki nork dituen merituak. Zerbait berria ikasteko asmo horretan aurrera egin beharko zenuke.



AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Ez zenuke albistea emateko ordua gehiago atzeratu behar. Gainera, zuk ere espero ez duzun albiste baten berri izango duzu. Honen harira, ospakizunen bat etorriko da.



PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Udaberririk onena izango duen zeinuko zara. Maitasunean, ibilbide profesionalan eta etxean, ezin hobeto joango zaizkizu gauzak. Ez da lainorik izango zure zeruan.



gora ezkongaiak!

BIKOTE BONUA

emakumeak

- Aurpegiko azala garbitzea
- Depilazioa
- Manikura
- Makillaje proba
- Kosmetiko geruza, luminising
- Ezkontza eguneko makillajea

gizonak

- Aurpegiko azala garbitzea
- Depilazioa
- Manikura
- Kosmetiko geruza, luminising

OPARIA, SOLARIUM BONUA

295€

ANDREGAI BONUA, DeLuxe

- Aurpegiko tratamendua
- Depilazioa
- Manikura
- Pedikura
- Makillaje proba
- Gorputz peeling-a
- Kolageno-errezelazko tratamendua
- Ezkontza eguneko makillajea

OPARIA, SOLARIUM BONUA

360€

ANDREGAI BONUA

- Aurpegiko azala garbitzea
- Depilazioa
- Manikura
- Makillaje proba
- Ezkontza eguneko makillajea

OPARIA, LUMINISING KOSMETIKO-GERUZA

165€



Maite

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA



ondo doakizu.

Eta orain, tratamenduak 24 hilabetetan finantza ditzakezu interesik gabe.

Deitu orain, eta erreserba ezazu zure lehenbiziko saioa.
Tfnoa. 943 67 03 38 | Leiza kalea z/g TOLOSA

Kalitatea eta segurtasuna zure zerbitzura - Ezkontzak, irteerak, ikastetxeak, autobus literadunak gauz lasai bidaiatzeko...



URPA

AUTOBUSAK

Tel.: 666 489 010 / 11 (24 orduak)

Tel.: 943 305 050 (Garajea)

Faxa: 943 305 060 (Garajea)

Ubillus auzunea. 55 polig.
9 pabilioia, 4 zbkia.
ANDOAIN (Gipuzkoa)



Maiteka

42-58 neurriak

Errementari, 46 #20400 Tolosa #telf. 943 675 289



